

Goierri

311. zenbakia 2006ko azaroak 17

ARALARREN ERRAIK

DR. JOSE
GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53
Urbietan, 39 - 1º Ezk / 20006 Donostia / T 943 471 885

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA

Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Hodei Lopez

Burdinezko bola

Pisu jaurtitzen nei sei kiloko bolak ematen dit lana garrantzitsu da nik aurreratzen dudana zentimetro dana profesionalen zazpi kilokoa altxatzean aze drama nik ehunda hamar kilokoa det gaur nere gaineko zama zu altxatuta konturatzen naiz zenbat pisatzen dudana.

Zama haundiko pisua ondo dakit ez daukagu kulpik mundialetan nere herria ez dena babestu det nik esaten nuen mundiala da txapelketa haundia izanik kontzientzi karga daukat ordutik ta esango dut zergatik nere burua ikusi baitut gure borrokan gainetik.

Doinua: 'Aita izena'

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikoitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56
943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Ane Juarez Mendizabal.
5. **Ingurugiro txokoa:** Nork nori zor.
6. **Errezeta:** Itsas-zapoa papilote erara.
Aholkua: 'Begi alferra'.
7. **Kate motzean:** Angel Elorza.
8. **Erreportajea:** Abiadura Handiko Trenari buruz herritarrei iritzia eskatuz.
12. **Erreportajea:** Aralarreko erraietan barrena.
17. **Gazte leku:** Hodei lurrita.
20. **Elkarrizketa:** Karmele Izagirre ataundarra, bihotzeko kontuetan.
24. **Non zer.**
25. **Iragarki laburrak.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Ane Juarez Mendizabal
(EHBEko kidea)

*Herri orok
behar du bere
Hezkuntza
Sistema eta
bonen
biziraupena
ziurtatzeko
bitartekoa da
hezkuntza.*

Hezkuntza sistema propio baten alde

Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) Hezkuntza Sistema Propio baten alde lan egiten duen herri ekimen bat da. Euskal Herri osoko ikasle, irakasle, guraso eta hezkuntzaz arduraturik dauden herritarrek osatzen dute.

2001. urtean Hezkuntza Sistema propio baten aldeko kanpaina hasi zen. Bertan alor desberdinetako hainbat eragilek eta herritarrek hartu zuten parte, modu honetan herri ekimen gisa definituriko EHBE sortu zen. Altsasun egin zen Batzar-Sortzailean ekimen honen izaera eta helburua zeintzuk izango ziren zehaztu ziren. Herri bakoitzak Hezkuntza eredu propioa eraikitzeko beharra zela ikusi zen, baita Euskal Herriak bere eskola eraiki behar zuela ere. Honetarako zenbait ezaugarri atxiki zitzaizkion herri ekimen honi: herritarra, anitza, estamentu-arte-koa, sektoreartekoa eta praktikoa.

Hurrengo urtean Zarautzen burututako mintegietan EHBEren lanerako irizpide teoriko eta praktikoak finkatu ziren. Hezkuntza Sistema Propio baten bidean abiatzeko oinarriko bost helburu zehaztu ziren, Aldarrikapen Taula gisa definitu dena.

1. Haur-eskola euskalduna eta herritarra.
2. Eskolak euskaldundu behar du.
3. Euskal eskolak euskal curriculuma.
4. Lanbide eskolak euskaraz.
5. Euskal Herriak euskal unibertsitatea.

Azken bost urte hauetan dinamika sozial anitzak burutu ditugu aldarrikapen hauen inguruan Euskal Herri osoan zehar.

1. Euskal Curriculuma: laster eskuarte izango dugun Euskal Herri osorako bitarteko pedagogikoa.
2. Euskal Unibertsitatea: Sustapen Batzor-

deak amaitzeaz du Euskal Unibertsitatearen aurreproiektua.

3. Eskolak euskaldundu behar du: Aldarrikapenaren inguruan herritar eta eragile ugari bildu dira. Maiatzaren 27an Donostian amaiera eman zitzaion kanpaina 107.768 sinadura bildu ziren.

Nahiz eta ekintza ugari egin, balorazio sakonago bat egiteko ordua ere iritsi da. EHBEk orain hilabete gutxi herri ekimenaren lana eta hezkuntza mailako aldaketan inguruko balantzea egin du, bertan lorpenak eta hutsuneak ikusi direlarik. Balorapen honen ondorioz hausnarketa prozesu berri bat ireki du, datozen lau urteetan EHBEri sortuko zaizkion behar berriei egoki erantzun ahal izateko. Hau da, III. Nazio Mintegiak burutzeko arrazoia, "Hezkuntza plazara!" izeneko.

Herri orok behar du bere Hezkuntza Sistema eta honen biziraupena ziurtatzeko bitartekoa da hezkuntza. Beraz, hezkuntzarekiko erantzukizuna hezkuntza komunitate osoarena da, baita herritarrena ere. Horregatik mintegi hauen bidez hezkuntza Euskal Herri osoko plazetara zabaltzen saiatuko gara. Beraz, guztiok izango dugu herriz herri egingo diren batzarretan parte hartu eta ekarpen propioak egiteko aukera.

Ordizian dagoeneko lehen batzar bat burutu da. Bertan, EHBEren aurkezpena eta eztabaidarako lehen urratsak eman ziren. Hurrengo batzarra, azaroaren 28an izango da Barrenan, arratsaldeko 7etan. Interesa duen orori gonbidapena luzatzen diegu eta bertan eztabaidatuko diren ponentziak www.euskaleskola.org -en topa ditzakete. Hezkuntza eredu propio baten alde, hezkuntza plazara!

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoena

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Nork nori zor?

Zor Ekologikoak Iparrak Hegoari zor diona islatzen du, hots, herrialde industrializatuek egina da, historian zehar eta gaur egun, beste herrialdeei baliabide naturalak lapurtzeagatik, esportatutako ingurune-inpaktuengatik eta hondakinak uzteko eremu globala edonola erabiltzeagatik. Izan ere, garai kolonialetik gaur egunera arte handituz joan den lapurreta-harrapaketa hori ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloetatik aztertuz gero, datu zehatzetan neur liteke.

Gaur egun inor gutxi ukatzen du gure garapen ereduak sortarazten dituen ingurumen eta gizarte kalteak. Ekuadorren gertatzen ari den Texaco petrolio konpainiaren aurkako epaiketa horren ebidentzia dugu. Kontua da nola neurtu eta kontabilizatu kalte horren ordaina. Nork ebaluatuko du indigena edo nekazal erkidego oso baten desplazamenduen prezioa urtegi baten obragatik? Nork hartzen du kontuan ur azpian galtzen diren lur emankorren balioa? Noraino heltzen dira ingurumen inpaktoaren ikerketak ekosistematan, naturan edo gizatalde baten osasun egoeraren sortzen diren galera zenbatzerakoan?

Normalean Zor Ekologikoan lau arlo nabarmentzen



dira. Karbonoaren zorra, alegia, CO2 isurketen bidez herrialde industrializatuek etengabe kutsatzen dute atmosfera, berotegi-efektua sortuz.

Bigarrenenez, Biopirateria deitzen dena, hots, herrialde industrializatuetakoko laborategiek bidegabeki lapurtze duten indiarren antzinako jakintza (haziei, sendabelarrei eta abarri buruzkoak). Berori baliatuta, gainera, patente eskubideak kobratu ere egiten dituzte, jakintza horren benetako jabeen zentimorik eman gabe.

Gero Ingurumen-pasiboak ditugu. Baliabide naturalak erauzi ondoren, txarto ordaindutako esportazioa behartzen dute lotsarik gabe herrialde industrializatuek. Dena koste ekologiko handiarekin eta Hegoaldeko herrien garapen jaingarria eragotziz.

Eta honi loturik eta laugarrenez, herrialde industrializatueta sortutako

Hondakin toxikoak herrialde pobretuetara esportatu eta bertan uzten dira.

Jakina da, gure sistema ekonomikoak hazkunde iraunkorra duela oinarri, eta hortxe datza bere kontrarian handiena. Daukagun hazkunde ekonomikoaren eredu horrek azken 60 urtetan herri aberastuen eta pobretuen artean eutsiezinakozko diferentziak eragin dituela onartzen badugu, agian, gure sistema ekonomiko-energetikoa jarri beharko genuke zalantzan.

S. Latouchek dioenez, gure energia sistemak honako programa honi eutsi egin beharko lioke: BIREbaluatu, BIREgituratu, BIR-banatu, BIR-murriztu, BIR-erabili eta BIR-ziklatu. Horretarako, energia berriztagarrietara moldatu behar ditugu geure energia kontsumoak. Horrek gure ohi-turak erabatu behar ditugula esan nahi du eta aurrezteko eta eraginkortasuna lortzeko planak abian jarri egin behar direla. Hartara, mugitzeko erabiltzen ditugun moduak aldatzen hastea geure Zor Ekologikoa konpentsatzeko oinarritzko gako da.

Ekologistak Martxan (laburtua)

JAKIN BEHARREKOAK

AHTgelditu Elkarlanean biltzen diren hainbat gizarte mugimendu eta erakunde Abiadura Handiko Trenaren obren hastapenari ahalik eta erantzun zabalena emateko datoren azaroaren 18an Gasteizen egingo den manifestaziora joateko dei egiten du. Manifestazioa larunbata 18an, arratsaldeko 5etan "Iparralde" gizarte etxetik aterako da. Orain da garaia Abiadura Handiko Trenea gelditzea, Azaroaren 18an denok Gasteizera!

Gasteiz aldeko hemezortzi herritan AHT arbuia dute. %90 AHTren aurka azaldu dira eginiko galdeketa. Obrak bertan behera uztea eskatzen dute AHTko informazioa osoa eta eztabaida ematen ez den bitartean. Gipuzkoan Itsasondo herrian egingo da galdeketa abenduak 3an. Hala ere, emaitzei jaramonik egin gabe, Gasteiz aldean lanak hasi dira jadanik.

Bakio 2010 plangintza berriaren arabera Bakion 462 etxebizitza (0 babes ofizialekoa) eta golf zelaia egin nahi dute. Kostaldeketik 100 m baino gutxiagora eraiki nahi da eta Gaztelugatxeko biotopoaren alboan. www.bakiosos.org
TSJPV auzitegiak bertan behera utzi du Aratz-Aizkorrin meategi ustiaketa martxan jartzeko plana.

WEB-GUNEA

www.viacampesina.org nekazal mugimenduaren berri emango digu web honek.

Zor Ekologikoak Iparrak Hegoari
zor diona islatzen du, hots,
herrialde industrializatuek egina
da, historian zehar eta gaur egun.



Iker Markinez
Kuko jatetxea
Ormaiztegi

4 laguntzako osagaiak

- Porru 1
- Azenario 1
- Espinaka sortatxoa
- Onddo eder 1
- Zapoa, kilo eta erdi ingurukoa
- Oliba olioia
- Gatza
- Limoi 1
- Perrexila

Arrandegian zapoa garbitu eta hezurrik gabe lau puskatan prestatzeko eskatuko dugu.

Onddo garbitu eta laminatan moztu, zartagian minutu pare batez gatz eta olio pittin batekin prestatu.

Barazkiak juliana erara moztu. Ur irakinetan eta gatz pixka batekin 3 minutuz egosi eta ura kendu.

Labea 200 gradutan berotzen jarri eta aluminiozko lau paper pusкета irikita jarri laberako balio duen bandeja baten gainean. Goilakada bat onddo jarri paper

puska bakoitzaren gainean. Gainean zapo pusqueta bana. Zapoiari gatz pixka bat bota, eta gainean lehendik prestatu ditugun barazkiak jarri. Olio, limoi eta perrexil pixka bat bota. Beste lau pusqueta berri egin aluminio paperarekin eta, janaria dugun pilo bakoitza ondo-ondo estali, lau paketetxo itxi lortu arte.

Bandeja labean sartu eta bertan 10 bat minutuz eduk. Ateratzen dugunean, paketetxoei leiho moduko zulo txo bat egin eta prest dago mahaira ateratzeko.

'Begi alferra'

Eskolan egoten diren ikasketa-arazo askok, ikusmenarekin zerikusia daukate. Umeen %20ak, ikusmen arazoak daukate eta batzuk garaiz detektatu eta tratatu daitezke. Anbliopia edo "begi alferra" deritzoguna kasu bat da. Begi bategen bestearekin konparatuta duen ikusmen kalitatea pobregoa izaten da, begi horren garapen ez normalaren ondorioz. Beraz, detekzio

azkar eta tratamendu egokibaten bidez, ume horren ikusmen kalitatea hobetu daiteke, ikusmen normal bat edukiz.

Jaiotzean, gure ikusmena ez da batera garbia, gure garunaren ikusmen zelulak garatu gabe baitaude. Hazten goazen eran, ikusmena hobetzen doa baita 2 begien arteko funtzionamendua ere. 2 begietatik iristen diren irudiak, ikusmen ba-

kar eta garbi batean gartztea da gure garunaren funtzioa. Baina edozein arrazoiengatik 2 begiek duten irudiak ezberdinak badira, gure garunak okerren ikusmen duen begiaren irudia ez du kontuan hartuko eta beste begiaren ikusmena garatuko du gehiago. Honek batzuetan, begi bateko ikusmena ez gartztea dakar, anbliopia edo "begi alferra" deritzoguna jasanez. Garaiz hartuz gero eta tratamendu egokiarekin hobetu daiteke, 7-9 urtera arte noski, orduan baita gure ikusmenaren garapen maximoa. Urte huez geroztik, edozein tratamendu alferrikakoa izango da. Beraz, komenigarria da urtean behin gure ikus-

AHOLKUA



Ainhoa Arce
Argi Optika

mena begiratzea eta umeek hazten dihoazen eran dauzkaten sintomak kontutan hartzea: begi neketasuna, malkoa, begi baten keina...

Anbliopia edo 'begi alferra'
deritzoguna garaiz hartuz gero
eta tratamendu egokiarekin
hobetu daiteke.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913



“Nire ametsa munduari bira ematea da, argazkiak ateraz”

Argazkigintza zaletasuna baino gehiago al da zuretzat?
Pasio bat.

Argazkia txuri-beltzean ala koloretan?
Erretratuak txuri beltzean, paisaiak koloretan.

Kamara digitala ala analogikoa?
Gaur egun digitala, bere erosotasunengatik.

Argazki mota bat:
Erretratu estudioan.

Argazkilari bat?
Helmut Newton.

Kamara bat?
Digitalean Canon, analogikoan Nikon.

Zeri edo nori aterako zenioke argazki bat?
Elsa Patakyri.

Zeri edo nori atera diozu argazkirik onena?
Nire emazteari munduan zehar.

Argazki ona ateratzeko gaia ikusi eta zein izango liteke botoiari ez sakatzeko arrazoia?

Nire kamara aurrean dagoena gustura ez sentitzea.

Ordenagailuan, Photoshoparekin "mirari" asko egiten al dituzu?

Ez daukat nahiko trebeziarik oraindik.

Zerk sortzen dizu barrea?

Txiste on batek.

Eta negarra?

Bake prozesuaren gaur egungo egoerak.

Bizio bat?

Gozokiak

Gustoko jaki bat?

Arroz esnea.

Edari bat?

Sagardoa.

Goierriko txoko bat?

Kizkitza.

Oporretarako leku bat?

Urtero leku berria.

Amets bat:

Munduari bira ematea argazkiak ateraz.

Gabirian

(Alegia auzoan)

Ormaiztegi Irizarren parean

Eraikuntzan

Etxebizitza bikainak:

sotoa, behe solairua, 1. solairua

3 logela, 3 bainugela, terrazak, lorategi zabala, txokoa, garajea...

Eraikuntza berritzailea eta lehen mailako materialak

ZUZENKO SALMENTA



Bizitza bakarreko 6 etxebizitza, binakako blokeetan



INFORMAZIOA ETA SALMENTA: 943 16 10 32 - 652 77 57 41



xetai
www.xetai.net
Armairuak · Altxariak · Osagarriak
Tel.: 943 88 43 84 Oriamendi, 30 BEASAIN



Abiadura Handiko Trenari buruz herritarrei iritzia eskatuz

*Itsasondo Udalak herri
kontsulta egingo du
abenduaren 3an*

Gure artean oso ohikoa ez den bi-
dea erabiliko du abenduaren 3an
Itsasondoko udalak: herritarrei,
Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren
alde ala kontra dauden galdetuko die, he-
rri kontsultaren bidez. Liburutegian egun

guztian jarrita egongo da hautestontziak,
baiezko edo ezezko papertxoak sartzeko.
Herri kontsulta egin aurretik, Itsasondo-
ko udalaren ekimenez, Abiadura Handiko
Trenaren onurei eta kalteei buruzko in-
formazioa ematen ahalegindu da.


GUKlan
BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N

Itsasondoko Udalak, Agenda 21 foroak aldarrikatzen dituen bi irizpide oinarri hartuta, hau da, herritarrek informazioa izateko eta parte hartzeko eskubidea dutela, Itsasondo herriari betebetean eragiten dion Abiadura Handiko Trenaren proiektuaz herritarren iritzia jakiteko herri kontsulta edo herri galdeketa egingo du. Abenduaren 3an izango da galdeketa eguna. Xabier Iturriotz eta Dani Etxeberria, Itsasondoko alkatea eta zinegotziak bi hilabeteko prozesuaren berri eman digute.

Bi hilabeteko prozesua edo plangintza eraman aurrera Itsasondon, abenduaren 3ko herri galdeketa aurretik. Lehenengo, herri batzarrak herri galdeketa egitea erabaki zuen eta udal plenoak berretsi zuen ondoren. Jarraian, teknikari batek herriko talde ezberdengana jo zuen, iritzia jasotzeko asmotan. "Bilera hauetatik atera zen ondorioa, herritarrek, AHT-ari buruzko informaziorik ez dutela da".

Prozesuarekin jarraituz, era horretan, udalaren lehenengo lana herritarrei, Abiadura Handiko Trenaren proiektuari buruzko informazioa ematea izan da hitzaldien eta mahai-inguruen bidez. Aldeko eta kontrako iritzia. Dena den, Itsasondoko udaletik jakinarazi digutenez oso zail egin zaie AHT-aren proiektua defendituko duenik erakartzea. "Eusko Jaurlaritzako Garraio Saileko Nuria Lopez de Gereñuri gonbidapena egin diogu idatziz Itsasondora hitzaldi bat ematera eta mahai-inguru batean parte hartzera etortzeko. Baina ez da etorriko. Lopez de Gereñuk eskutitzez idatzi digunez "Ez gaude Euskal Trenbide Sare Berria egin behar den ala ez erabakitzeke unean. Euskal gizarte osoaren borondateari jarraiki Euskal Erakundeek



Xabier Iturriotz eta Dani Etxeberria, Itsasondoko alkatea eta zinegotzia.

Ekitaldiak

Itsasondoko Udalak herri galdeketa egin aurretik antolatutako informazio kanpainako ekitaldiak:

Azaroak 21, asteartea:

19:30ean: Mila Elortzak (AHT Gelditu Elkarlaneko kidea) eta Eneko Karrerak (Gipuzkoako EHNE sindikatuko lehendakaria) AHT-ren aurkako azalpenak emango dituzte.

Azaroak 22, asteazkena:

19:30ean: Xabier Ezeizabarrena (EAJ)k AHTren aldeko azalpenak emango ditu.

Azaroak 28, asteartea:

19:30ean: AHT-ren inguruko mahai-ingurua.

erabaki hori hartua dute dagoeneko". Beste ate batzuk ere jo ditugu eta saiaturako gara norbait ekartzen", dio Dani Etxeberriak.

Udalari dena den, urte guzti hauetan ez zaio batere erraza egin Abiadura Handiko Trenari buruzko informazioa edukitzea. Askotan gainera komunibide bidez jakin izan dituzte Itsasondori dagozkion albisteak. "Hemen garbi dagoena da Eusko Jaurlaritzatik ez dagoela borondaterik informaziorik emateko. Itsasondoko zatia-ri dagozkion proiektuaren txostenak, 9 liburutzar, Gasteiza joan eta Amann-i eskatuta lortu ditugu. Beste herri batzuk ere ari dira eskatzen

baina ez diote ematen. Eta udalak informaziorik ez badauka, oso zaila da herritarrei ere informazio zuzena ematea", zehaztu du Etxeberriak.

Jarrera ona

Hurrengo plenoak, azkenik, abenduaren 3an, hautes mahai osatuko dutenak aukeratzeko zozketa egingo du.

Herri galdeketa ateratzen den emaitza dena dela-koa ere, Udalarentzat garrantzitsuenak, jendearen partehartzea da. "Gure helburua akuilu lana egitea eta ateratzen den emaitzarekin konsekuente izatea da. Itsasondoko Udala behintzat

Manifestazioa

Itsasondoko Udalak hartu duen bidearen bat egin du 'AHT gelditu' Elkarlanak. Erakunde honek berak, azaroaren 26an, hainbat ekintza antolatu ditu. Batetik, goizeko 10etan Itsasondoko plaza-rik abiatuta mendi mar-txa izango da Ordiziarai-no. 12:00etan, Ordiziako plaza-rik manifestazioa abiatuko da Itsasondorai-no. Jarraian, bazkaria egingo da Itsasondon.

gustura dago, beste batzuk ez bezala, guk lan hori hartzea erabaki eta egin dugulako. Herri galdeketa-aren emaitza AHT-aren aurkakoa bada, Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundia-ri eta Espainiako Gobernu-ari jakinaraziko diogu", zehaztu Etxeberriak.

"Momentuz behintzat, jendeak oso gustura hartu du elkar-terren edo talderen batera joan eta informazioa eman eta jaso egite hori", dio Xabier Iturriotzek. Dani Etxeberriak gaineratu duenez ordea, "ezin gara gai guzti-ekin etxeko zerbitzu-arekin. Herritar-ek ere konturatu behar dira neurri batean udala bera-riengana joango dela baina bera-iek ere etorri behar direla uda-letxera batzarrak egiten direnean. Hau da, elkar-trueka egon behar duela".

Lehenengo ikasgaia

Herritar-ek informatu eta ondoren erabaki-eta herri-tarren parte hartzea bultza-tuko duen herri kontsul-taren bidea hasi besterik ez du egin Itsasondoko Uda-lak, "herria herritar-ek egin behar dutelako". Herri-ari dagozkion hainbat gai-eta ere herri-ari galdeketa egite-ko asmoa dauka, Arau Sub-sidarioetan adibidez. Era honetan, Abiadura Handi-ko Trenaren kontsul-ta hau, iraka-sgaia izango da.

Eusebio Lasa:

AHT gelditu elkarlanean

Zergatik ez Abiadura Handiko Trenari?

Eredu neoliberalaren adibiderik esanguratsuen delako. Ez da ohiko tren bat. Trenaren itxura du, baina hegazkinaren parekoa da distantziei, geldialdiei eta energia gastuei dagokionez. Gure kasuan, bereziki Paris eta Madril lotzeko eraiki nahi da, periferiako hiriburuarekin lotuz. Eta horretarako AHT-k Euskal Herria eta Goierri eskualdea ziztu bizian zeharkatu behar du 400 kilometrotik gorako distantziak azkar lotzeko. Hemen go administrazioek saltzen ari dira lortu egin dutela Euskal Herriko hiriburuetan geltokiak ipintzea. Hala ere, ezkututzen dute hiriburuaren arteko bidaia Euskal Herrian egiten diren guztien %1,9 bakarrik direla. Bestalde, inoiz Euskal Herrian egin nahi den azpiegiturarik handiena eta garestiena da. 6.000 milioi euro inguru kostatuko da. Guztiok ordainduko dugu baina aurrikusitako ibilbide eta salneurri garestiak aintzat harturik, gutxi batzuek erabili ahal izango dute. AHT-k tren garraio eta zerbitzu publiko eta unibertsala delako kontzeptua lurperatu egiten du eta, gainera, ez ditu egungo trafiko eta garraio arazoak konponduko. Dirutza hori ondo administratuta posible izango zen populazio osoarentzat kalitatezko garraio zerbitzu publiko antolatzea eta beste behar sozial askori behar den bezala erantzutea. AHT-k konponezinezko kaltea egingo dio ingurumenari eta lurralde desoreka eta nekazaritzaren gainbehera bultzatuko du. Eta azpiegitura hau PNV, EA eta Ezker Batuaren Hirukoaren Gobernuak inposatu egin nahi du benetako eztabaida partehartzailea eta erabaki-

tzeko ahalmena herriari eman gabe.

Goierritarrek onura jasoko al dute AHT-arekin?

Onurarik ez. Kalteak, berriz, izugarriak izango dira. AHT ziztu bizian igaroko da Goierriko eskualdetik gelditu gabe. Kostu ekonomikoak, sozialak eta ekologikoak, berriz, oso larriak izango dira eskualdearentzat. Goierriko 65.000 biztanleek 130 milioi euro ordaindu beharko dute zergen bitartez AHT eraikitzeko, eta kontrapartida bakarra txikizioa, nekazal-lurren desagerpena, zarata izugarria eta inpaktu paisajistikoa izango dira. Gainera, garraio arazoak areagotu egingo dira N-1an, kamioi eta auto kopurua handitzen jarraituko duelako. Bestalde, AHT-ko bideratu nahi duten diru kopuru izugarriak hipotekatuko du gaur egun Goierritik pasatzen den trenbide konbentzionalaren eta zerbitzu publikoaren berrikuntza eta hobekuntza.

Azpiegitura handiko lana izango da. Ingurugiro aldetik zein eragin izango luke Goierri?

Dakizutenez, Y Grekoaren ibilbideak Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso, Zumarraga eta Urretxu udalerriak zeharkatuko ditu. Era berean, Goierriko eskualdean aurrikusten dira Nafarroako AHT-ren korridorearekin lotzeko planteatzen diren bi lotura posibleenak. Ezkio-Itsason edo Itsasondon. Lotura bat edo bestea onartzen bada Goierriko beste herri batzuk ere kaltetuko ditu eta gainera sekulako interkanbiadorea (scalextrik) egitea eskatuko du horrek dakarren lur okupazio izugarria eta ondorio ekologiko guztiekin. AHT-k Abiadura handia hartzeko



trazaketa oso zuzena eta pendiente oso txikia behar du. Baldintza tekniko hauek betetzeko tunelak, zubiak eta lurerauzketak nonahi burutuko dira. Eta honen ondorioz, barrera efektua izugarria izango da. Zarata ere ikaragarria, osasunarentzat kaltegarria trenbidetik 250 metroarteko tartean. Ezin dugu ahaztu ere lurren okupazio galanta, deserregulazio hidrologikoak eta hondakinentzako sortu beharko diren hamaika zabor-tegi.

Herritarrek behar adina informazio ba al daukate Abiadura Handiko Trenaren inguruan?

Gasteizko Gobernuak, informazio zehatza eta objektiboa zabaldu beharren partez propaganda kanpaina desberdinak burutu ditu, lelo orokorrak erabiliz ("esan bay AHT-ri") eta azpiegitura honen benetako helburuak eta ondorioak ezkutatu. Jarrera honek erakusten digu Gasteizko Gobernuak benetako beldurra diola informazio objektiboari eta eztabaida partehartzailea burutzeari. Badakielako hau burutuko balitz herritarren gehiengoa AHT-ren kontra agertuko zela. Jaurilaritzako arduradunak urduri daude eta lotsarik gabe ixten diote atea informazioari eta eztabaida zabaldu burutzeko aukerari. Bestela ez da normala Nuria Lopez de Gereñu, Garraio Sailburua, udara aurretik Beasainera etortzea hitzaldi bat ematea eta nora eta Ba-

tzokira. Hitzaldi ireki bat bazen ez al litzateke izango leku aproposagoa Udaletxe-ko Batzar Aretoa sektore guztietako jendea joateko, galderak egiteko eta eztabaidatzeko?. Hau gutxi bazen, egun hauetan jakin dugu Nuria Lopez de Gereñu berak ezetza eman diola Itsasondoko udalaren gonbidapen bati Mahai-inguru batetan parte hartzeko itsasondotarrek bi aldeko argudioak eduki dezaten.

Zein alternatiba aurkezten duzue?

Momentu honetan lehentasun osoa AHT-ren obrak gelditzea da. Hau bait da aukera bakarra eragile sozial, sindikal eta politiko guztien artean eztabaidatzeko eta erabakitzeko zein den Euskal Herriak behar duen garraio eta trenbide eredua. Hain zuzen ere, AHT eraikitzen bada itxi egiten dira gaur egungo garraio arazoak konponduko dituen beste eredu bat antolatzeko aukera. Gainera, gure eskuetan dago AHT gelditzea. Azken mobilizazioak erakusten dute indar eta energia nahikoa badela inposaketari aurre egiteko eta azpiegitura erraldoi hau gelditzeko.

Zer iruditzen zaizu Itsasondon Abiadura Handiko Trenari buruzko Kontsulta egitea?

Demokrazia ariketa bat egitea dela. Gainera, gaur egungo Gasteizko Gobernuaren jarrera prepotentea eta inposatzailea ikusita ezinbestekoa ikusten dugu jendartean informazioa zabaltzea, eztabaida piztea eta herriari hitza emateko aukera bermatzea. Gero herriak eman duen hitza errespetatadin exijitzeko. Aurretik Urbinak eta Gasteizko Kontzejuek egin duten bezala, orain itsasondotarrek edukiko dute aukera euren iritzia emateko. Gainera, ez da azkena izango beste herri batzuetan ere bide berdina jarraitzeko asmoa dutelako.

Arantxa Tapia Otaegi:

Eusko Jaurlaritzako, Garraio eta Herri Lan Sailburuordea

Gipuzkoan, non eta noiz hastekoak dira Abiadura Handiko Trenaren lanak?

Une honetan obrak hasita daude dagoeneko Arabako zatian, proiektuak aurreratuagoak baitzeuden zona horretan. Gipuzkoako kasuan, lehen eraikuntza proiektuak amaitzen ari dira eta espero dugu lehenengo obren esleipena egitea 2006ko amaieran edo 2007ko hasieran. Eta seguru asko Ordizia eta Itsasondo arteko zatitik abiatuko da.

Goierriin, zein izango litzateke ibilbidea: zenbat kilometro, zein ezaugarri, geltokiren bat...

Gasteiztik, Donostiarako norabidea kontuan hartuaz, trenak honelako ibilbidea egingo: Urretxu, Zumarraga, Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia, Itsasondo eta Legorreta. Ondoren, Tolosa aldera jarraituko duelarik. Ibilbide guzti honetan porzentai altu bat lurrazpitik joango da, tunelean hain zuzen ere. Une honetan, Madrilgo Sustapen Ministerioarekin, Donostia, Gasteiz, Bilbo, Irun eta Astigarragako (geltoki internazionala) geltokiak daude hitzartuta. Baina Jaurlaritzatik beti pentsatu dugu Ezkio-Itsason geltoki bat egin behar dela, kontutan hartuta gainera hor izan daitekeela, agian, Nafarroatik etorriko den ardatzarekiko lotunea. Baina momentuz ez dago akordiorik Ministerioarekin eta gaia lantzen jarraitzen dugu.

Goierritarrek zein onura jasoko dute?

Goierritarrek eta euskaldun guztiek jasoko ditugu tren honen onurak. Batetik, tren erabiltzen dugun neurrian, errepideetako segurtasuna hobetuko delako, eta istripu-kopurua gutxitu.

Trenbidearen alde apustu egitea, garraibide segurua-ren eta jasangarriaren alde egitea da.

Tren hau ez da Beasaindik Tolosara joateko tren, horretarako badaukagu aldirietakoa, baina aldiz, Madrilera, Bartzelonara edota Parisera joan behar dugunean, abioiaren aldean, benetako alternatiba eroso bat izango dugu. Horretaz gain, geroz eta mugikortasun handiagoa dagoen erkidegoan bizi gara, eta gure hiriburuak trenbide azkar eta eroso baten bitartez lotuak edukitzea berebizikoa da. Gure garraioa errepideetan oinarritua dago, eta garraio modu desberdinetara orekatu behar dugu, horretarako dugu beharrezkoa trenbide sare berri hau.

Gainera enpresentzako jarduera ekonomiko berriak sortu eta garraioari lotutako gastuak gutxitu egingo dituenetz, trenbide-sare berriak bultzada ederra eman go dio euskal ekonomiari. Gogoratu trenbide sare honen, pertsonak ez ezik, merkantziak ere garraiatuko dituela.

Zergatik da beharrezkoa Abiadura Handiko Trenena?

Trenbide berri honek bi xede nagusi ditu: barne egitura sendotzea, alde batetik, eta bestetik, Euskadi Europako garraio-sareetan sartzea.

Beraz lehenik, Erkidegoko hiru hiriburuak prestazio handiko trenbide baten bidez lotuko ditu, eta beraz, beste garraio modu batzuekin alderatuta, batez ere automobilarekin, lehiakorragoa izango den garraio zerbitzuak eskaini ahal izango dira. Kontuan izanik Erkidegoan garraioa bide azpiegiturretan oinarritua dagoela, beharrezkoa dugu oreka



bat, garraio modu desberdinen artean.

Bestetik, berebiziko garrantzia du, Erkidegoa, Europako abiadura handiko sarean murgiltzea. Kontuan izan, gure eukal y-a rotula moduko bat izango dela, Europar herrialdeetara eta penintsulako herrialdeetara (Espainia, zein Portugal) lotuko gaitularik.

Azpiegitura handiko lana izango da. Ingurugiro aldetik zein eragin izango luke Goierriin?

Euskal Y-a garraio publiko jasangarri bat da, alegia ohikoa den moduan, arazok azpiegituraren eraikuntza lanetan sortzen dira. Horretarako ingurumen legeak eskatzen duena betetzeaz gain, ahalegin berezia egin dugu, azpiegitura honek ahalik eta kalte gutxien sortzeko. Esaterako, integrazio paisajistikoaren proiektua, edo Lurraneke bulegoa, non desjabetze hutsetik urrunduz, kasu bakoitzeko azterketan sartu garen, banan-banako irtenbideak planteatuz.

Gainera aipatzekoa da, azpiegitura honek ez duela inongo parke naturalik ikutuko, hau izan da, Eusko Jaurlaritzako, Garraio eta Herri Lan Sailaren xede nagusienetako bat, eta azpiegituraren honen ibilbidea gehien baldintzatu duena.

Hala ere, argi dago tren sare berriak gure gizarteari ekarriko dizkion onurek, askoz gaintzen dutela azpie-

giturak sor lezakeen afekzioa. Egun egin dezakegun kalterik handiena, egoera dagoen bezala mantentzea da.

Herritarrek behar adina informazio ba al dauka Abiadura Handiko Trenaren inguruan?

Inoiz ez da nahikoa. Urte asko pasa ditugu denok proiektua lantzen eta presatzen. Milaka ordu eman ditugu eztabaidetan bai erakundeetan eta baita ere komunikabideetan. Hemeroketara jotzea besterik ez dago. Prozesu luze horretan ikerketa eta eztabaida askoren buruan, eredurik egokiena definitu da. Onena eta posiblea izango dena.

Orain gure erronka eraikuntza prozesu hau ahalik eta modurik onenean aurrera eramatea da, obraren eraginak gutxituz eta ingurumenarekiko zein paisaiarekiko integrazioa modu berezian zainduz. Prozesu honetan, arreta handiz zainduko dugu informazioa eta komunikazioa, teknologia berriak erabiliz eta herritarroi behar adina informazio luzatuz. Obraren inguruko beraien iradokizunei atea irekiz. Gizarteratze prozesuari berebiziko garrantzia eman diogu gure Saitetik.

Zer iruditzen zaizu Itsasondan Abiadura Handiko Trenari buruzko herri-kontsulta egitea?

Euskal Y-a Europako garraio ardatz baten zati bat da. Horretaz gain, Euskadi osoa gorpuztuko eta egituratuko duen sarea dugu tren berria. Holako azpiegituraren inguruko erabakiak hartzeko ditugun esparruak zeintzuk diren argi dago gure egungo egitura politikoan, eta esparru guzti horietan eman zaio babesba proiektu honi.

Legitimoa izan daiteke horrelako ekimen bat erabiltzea propaganda edo borroka ekintza bezala, baina hori ez da kontsulta bat. Ez ditzagun gauzak nahastu.

Aralarren erraietan barrena

Aralar mendilerroa, gutxi edo gehiago, goierritar guztiok ezagutzen dugu. Aralarren barrenean, lurrazpian, dagoena, gutxi batzuek ezagutzen dute; espeleologoek alegia. Lurrazpiko errekek, putzuak, Aralar bertako in-

tsektuak, leize sakonak... Felix Ugarte Elkarteko espeleologoak, Aralarren barrenean ezagutu, arakatu eta txostenak egiten ari dira, Aralar eremu aberatsa baita Txomin Ugalde espeleologoak azpimarratu duenez.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

Aralarko Oiduiko txabola batean oinarrizko kanpamentua jartzen dute Felix Ugarte Elkartekoek beraien espeleologia jarduna errazteko. Hartara, goizean goiz, lanean hasi eta lana bukatutakoan atseden hartzeko aukera bertan dute espeleologoek, Enirio-Aralar Mankomunitateari esker.

Lurpeko eremuen ikerketa eta zaintza du helburu Felix Ugarte Elkartek. Era honetan, Enirio-Aralar Mankomunitateko basozaina den Jose Antonio Irastortzak azaldu digunez, garrantzitsua da espeleologo aldea egiten ari den lana. "Aralarren barrenaren, triparren, ahalik eta diagnostikorik zuzena egitea du helburu. Ondoren Aralarren egin behar den edozein aktuzio egin ahal izateko behar-beharrezkoa da lur azpiko egoera ere ezagutzea eta hori gutxi batzuen esku dago", zehaztu du Irastortzak.

Era honetan, Txomin Ugalde, Felix Ugarte Elkarteko kideak eskertu egin nahi du Enirio-Aralar Mankomunitatea. "Espeleologian estantziak luzeak izaten dira, 14-18-20 ordukoak. Hortik aurrerakoa arriskutsua izaten da, erreflejoak ez baitira berdinak. Beraz, 18-20 ordutik gorako espedizioak egin behar izanez gero, barruan kanpamentuak jartzen ditugu, zertxobait errekueratzeko. Guretzat oso garrantzitsua



Malkorri leizeko espedizioa

Felix Ugarte Elkartearen hurrengo erronketariko bat, Malkorri leizean ahalik eta gehiena barneratzea da, Aralarko eta Euskal Autonomia Erkideko leizerik sakonena denaren ustea baitute. 800 metrora jaisteko helburua dute. Alotza inguruan dago Malkorri leizea. Ondarre erreka eta Osinberdeko iturburua dauden leizea da Malkorri. Hau da, Arkaka errekaraino doan uraren iturburua. Udaberrian ekingo diote berriz espedizioari.

Momentuz, 300 metrora ino jaitsi dira espeleologoak. "Oso leize estua da eta oso geldo. Ehun metro gehiago jaitsi nahian gabiltza, kolektore orokorra aurkituko baitugu bertan eta Ondarre eta Osinberde kolektore horrekin daude lotuta. Beraz, 700 metrotik behera jaitsiko ginateke. Nabarmentzeko leizea beraz".

Ganbo inguruan ere beste zulo edo zirrikituren baten bila ere badabilta espeleologoak, Malkorriarekin lotuta dagoela uste baitute. "Malkorriren 700 metro horiei beraz, beste ehun gehitu behar zaie. Hau da, 800 metroko zuloa aurkituko genuke".

Dena den, Malkorri leizearen aurkikuntza bukatu gabe dagoenean, momentuz, Lizurritzetako leizea da Aralarko leizerik sakonena. 584 metro ditu.

Munduko sakonena

Euskal Herriko leizerik sakonenak, Pirinioetan, Larran, Belaguatik gora daude. Budogiako leizeak 1.408 metro ditu eta San Martingoak 1.342 metro. "Hurrengo leizerik sakonenak Aralarren daude. Budogiako leizea, munduko hamalagarren leizerik sakonena. Mendian, hamalagarren zortzimilakoa Cho Oyuren parekoa", zehaztu du Ugaldek. Munduko sakontasunik handiena duen leizea Abkhazian, Kaukason, dago eta 2000 metrotik gora dauzka.

Mendiko adibideekin jarraituz, Aralarko Malkorri leizea, sei milako mendi baten neurriarekin parekatu du Ugaldek.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Eskuinean Txomin Ugalde Malkorriko leizetik atera ondoren.

da, Malkorriko leizearen ahotik gertu egongo den kanpamendu bat edukitzea. Gertatu izan zaigu 22 orduko ekinaldia egin, kanpora atera, kotxera iristeko bi ordu ibili eta Donostiaraino joatea. Kide bat, lo gelditzen eta istripua izan zuen. Beraz, gu saiatzen gara, era honetako esfortzuak egin behar ditugunean kanpamenduak antolatzea”, azpimarratu du Txomin Ugalde espeleologoak.

Aralar mendilerroa eremu aberatsa da espeleologiarako. “Bertikalik garrantzitsuenak Aralarren daude. Aralar handia da eta fenomeno karstikoa garrantzitsuak daude. Gipuzkoako kobazuloen herena Aralarren dago. Gipuzkoan 1.500

koba inbentariatuta baldin badaude, 500 Aralarren daude”.

Ikerketa ugari

Felix Ugarte elkartean, 50 bat bazkide daude. Arkeologoak, biologoak, ingeniariak, arotzak... ogibide ezberdinetako pertsonak zaleztasun eta lan- batek uztartzen ditu: espeleologiak. Talde honen izpiritua, espeleologia hutsaz gain, lurpeko eremuen ikerketa eta zaintza da. “Espeleologiak gai asko hartzen ditu. Kanpoko munduan ikertzaile asko dagoen bezala, lurrazpiko mundura jenderik ez doa”. 4 alorretan ari dira lanean Felix Ugartekoak.

Alor batean, espeleologia, esplorazioa lantzen du-

te. Espeleologia eskola ere badaukate. Ikastetxeetan, espeleologia ere barnertzen dute. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kirol eskolarren barruan parte hartzen ari dira. Zenbait udalek ere antolatu izan dituzte espeleologia hastapeneko ikastaroak.

Eremu fisikoan, lurrazpiko uraren azterketa, geomorfologia lantzen dute. “Aralarren adibidez, glaziarrak garaiko aztarnak badaude. Hemen ez daukagu glaziarrak egoteko nahiko kota baina Aralarren badaude garai klimatiko honetako aztarnak. Ikertzen ari gara”, zehaztu du Txomin Ugaldek.

Giza ikuspegitik, “meategien atalarekin gabilta.

Aiako Harrietako meategi gehienak arakatu ditugu. Erromatar garaiko 400 metro meategi ezagutzen ziren baina guk 5.000 metro aurkitu ditugu. Penintsula-lako garrantzitsuena da. 6 maila ditu. Zoragarria da. Aralarren esperientzia hori errepikatu nahi dugu. Aralarren *a priori* ez dugu erromatar aztarnarik aurkituko. Baina badaigo XVIII. mendeko meategi bat, eta interesgarria da. Ez dut baztertzen meategi zaharrik aurkitzerik, kobreak lotutakoak. Dolmenak erabiltzen zituen jendeak kobrea eta brontzea erabiltzen zituen”.

Intsektu endemikoak

Giza ikuspegiaren barruan, arlo etnografikoa ere aztertzen ari dira Felix Ugartekoak. “Oso garrantzitsua da artzainek, nekazariak... erabili izan baitituzte zulo horiek. Leienda asko daude. Garai gatazkatsuetan babeslekuak ere izan dira. Historia bitxiak daude Caro Barrojak eta Jose Mari Satrustegik aipatzen dute, Euskal Herriko mitologia lurriko lotutako mitologia dela, lurrazpitik ateratzen dela guztia, ona edo txarra, baina dena lurrazpitik ateratzen da”.

Biologiaren arloa ere lantzen ari dira. “Aralarren badaude lurrazpiko intsektu endemikoak, Aralar bertakoak. Lurrazpiko egokitutako intsektuak dira. Itsuak

SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS. 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ERREFORMAK

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak

☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



dira, asko, ia gardenak. Beraien bizitza zikloa zuloaren barruan egiten dute. Aldaketa klimatikoekin espeziaz batzuk desagertu egin dira baina beste batzuk lurrazpian gelditu dira eta egokitu egin dira. Mendigune karstikoek ez daukate inongo komunikaziorik, irlak bezala dira eta irla horretan eboluzionatu dute. Biologoek diote oso garrantzitsua dela irla horiek aztertzea, aztarna endemiko horiek aurkitu eta aztertzeko”.

Uraren misterioa

Euri ura Aralar mendizerrako zirrikituetatik sartu eta lurrazpiko errekek eta putzuak sortzen ditu. Ondarre lurrazpiko errekan adibidez, zodiac-ean ibiltzeko aukera ere bada. “Lurrazpian 15 kilometroko galeriak arakatu ditugu dagoneko”.


Arkaka erreka adibidea jarri digu Txomin Ugaldek. “Formula bat badago egindako euriaren arabera erreka baten ur emaria neurtzeko. Arkakaren ur emaria neurtuta, behar lukeena baino kantitate handiagoa da. Horren arrazoia,

Aralar azpiko zenbait iturbururen emaria gehitu behar zaiola da. Kasu honetan, Osinberde, Urtxikiain, Arkaka Txiki eta Osinbeltzena. Iturburuen datuak biltzen ari gara. Euririk egon gabeko garaietan zenbatera lehortuko ote liratekeen jakiteko”.

Prozesu geldoa

Pazientzia eta dedikazio handiko lana da espeleologia. “500 metro jaisteko askotan bost urte behar izaten ditugu. Imajinatu Mont Blanc-eko kresta igo behar duzula, begiak itxita eta lainoarekin. Mendi bat igo eta galdetzen duzu, hau izango al da handiena? Kresta jaitsi, beste bat igo... handiena aurkitu arte. Kobazuloetan ere berdin”.

Zirriztuak zabaltzen esaterako, ordu asko pasatzen dituzte. Txomin Ugaldek kontatu digu nola zabaltzen dute zirriztuak: “lehergailu txiki antzeko batzuk erabiltzen ditugu. Taladroarekin zuloak egin, barrak jarri eta pistoi txikiak jartzen ditugu. Lehertu, puskatu eta horrela irekitzen ditugu zirriztuak”.



Segurtasuna oinarri

Ahalegin fisiko eta psikologiko handia eskatzen duen jarduna da espeleologia. “Espeleologo baten gastu energetikoa ikaragarria da: eguneko, 10.000 kilo/kaloria. Bizitza normalean, 2.000 kilo/kaloria gastatzen ditugu. Deshidratazioa ere izugarria izaten da ur asko edan behar da. Jan ere tengabe egin behar da. 22-24 orduan gelditu ere egin gabe, itxuraz jan eta lorik egin gabe, 5 kilo gutxiagoarekin irten izan gara behin baino gehiagotan”.

Ordu askotako saioak egin behar izaten dituzte espeleologoek, itxuraz jan gabe eta lorik egin gabe. Zenbat eta ordu gehiago orduan eta arrisku gehiago. Dena den, segurtasunari garrantzia handia ematen diote, lurrazpiko istripu bat hilgarria izan baitaiteke. “Hanka bat edo bizkar hezurra hautsiz gero ezin duzu atera. Eta ateraz gero, 15 egun edo hilabete behar duzu eta pentsa bizkar hezurra hautsita daukana, hilda da aterako da. Hori dena, oso pasadizo estuak daudenez eta kamilarik ez in delako pasatu. Espeleologian oso kontuz ibili behar da, erreskateak oso zailak eta geldoak direlako. Egunetako erreskateak dira. Guk behin eta berriz azpimarratzen dugun gaia da, segurtasuna. Norberaren eta lagunaren segurtasuna”.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...

era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA



Erabateko ixiltasuna eta iluntasuna

Lurraren azpia bezain ezezaguna da gehienontzat espeleologia. Felix Ugarte Elkartearen helburua ere bada gazteak espeleologiara hurbiltzea. Horretarako espeleologia eskola mar-txan daukate. Ondoren, lurrazpira bi-daia egingo dugu Txomin Ugalde-ekin, lur azpia eta espeleologia gertua-gotik ezagutzeko.

Hotza, iluntasuna eta ixiltasuna. Hiru ezaugarri horiek ditu leizeak.

Temperatura

Leizeko tenperatura, urteko bataz bestekoa dela esaten da. Aralarren, 7-8 gradu egoten dira. Pirinioetan 3-4 gradu.

Kaskoaz gain, jantziak beraz, garrantzia handia du espeleologian. Askotan gainera, uretan ibili behar izaten dute. "Ura dagoen lekuan, jantzi iragazkaitza eramaten dugu, buzo termiko bat. Urik ez dagoen lekuan ibili behar baldin badugu, zerbait transpi-

ragarria. Uretan asko ibili behar izanez gero, neoprenoa eramaten dugu. Neoprenoa ez hondatzeko, buzoa jar-tzen dugu gainetik".

Txomin Ugaldek ia 40 urte dar-mazki espeleologian eta urte hauetan guztietan jantzien arloa asko aldatu dela dio. "Orain dela 30 urte, meka-nikoaren buzoarekin eta amak eginda-ko jertsearekin joaten ginen. Gaur egun jantzi zoragarriak daude".

Iluntasuna

Erabateko iluntasuna dugu lurraren erraieran. "Argirik gabe geldituz gero ez da ezertxo ere ikusten. Pelikuletan ikusten da bakarren bat argirik gabe gelditu eta argiren bat ikusten dela, baina hori ezinezkoa da. Leize batean argirik gabe geldituz gero, geldirik egon zaitezke ez zara irtengo-eta", ze-haztu du Ugaldek.

Argiztapena beraz, garrantzia han-dikoa da. Jantzien arloari gertatu

zaion bezala, argiztapen sistemak ere asko aldatu dira. "Pizte sistema asko hobetu da eta horrek fidagarritasun handia ematen du. Azetilenoa erabi-tzen da, karburozko bonbona: fuertea delako, fidagarria da, eta iraupen han-dikoa da. Orain argiztapen elektrikoa sartzen ari dira. Oso gutxi kontsumi-tzen du eta argi ona dauka. Baina elektrikoa denez, hezetasuna da era-gozen handiena da. Baina nik uste dut gutxira hobetuko dutela eta gure-tzat, jakina askoz ere erosoagoa da".

Argiztapen sistemaren aurrerape-nak autonomia handiagoa eman dio espeleologoari. "Orain pizteko sista-ma oso fidagarria da eta oso erraza da. Sistema horrek autonomia handia eman dio espeleologoari. Ondorioz gaur egun, mailakatuta ibiltzen gara. Lehenengo bat jaisten da eta 10-15 minutura beste bat, abiadura handia-goa emateko. Izan ere, geldi zauden garaian hoztu egiten zara, 7-8 gradu egiten baititu eta izerdituta baitzaude.

Komunikazioa

Kanpoko komunikazioa ere ezinbes-tekoa da. "Sakonera zehatz batetik au-rrera telefonoa instalatzen dugu. Bi modu daude, elektrikoak ez du fun-tzionatzen-eta: bat hariarekin eta bes-tea uhinen bidez. Denbora tarte ze-hatz batera txostenak bidaltzen ditugu kanpora. Oso garrantzitsua da komu-nikazio hau. Adibidez, Lizurritzetako leizean geundenean, kanpoan sekula-ko euri jasa bota zuela esan ziguten. Zati bat bazegoen, ura zetorrenean urpean gelditzen zela, beraz, korrika alde egin genuen, urak ez harrapatze-ko, sudurra justu-justu kanpoan geldi-tzen zitzaigula. Urak harrapatuz gero, barruan gelditu behar pare bat egune-an".

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Dato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS-420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

ARANDIA
Garajea

LADA AUTOEN KONPONKETA
Ssang Yong

N-1, z/g
Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

 **kutxa**

Hodei Iurrita, 'Eskiatzaile bat itsuaurreko'



*Bost urte egin ditu
ormaiztegiarrak
Eric Villalon eskiatzaile
itsuaren gidari lanetan*

Eskia da Hodei Iurritaren zaletasuna eta pasioa. Txikitandik hasi eta 16 urtera arte eski lehiaketetan hainbat garaipen lortu ondoren, azken 5 neguak Eric Villalon itsuaren gidari egin ditu 22 urteko ormaiztegiarrak. Bien

arteko elkar ulertze ona ezin bestekoa da itsuen eskian eta horretarako ordu asko egin ditu Hodeik 32 urteko eskiatzaile kataluniarrarekin. Garaipen ugari lortzeaz gain jende eta bazter ugari ezagutzeko aukera paregabea izan du.



**ZEGAMA
OKINDEGIA**
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Mota guztietako
gida-baimenak

**Aita Urdaneta
ORDIZIA**
☎ 943 88 72 76



**Iñusti
Hartz Klinika**
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zeh. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



Olinpiar jokoetan egin zireneten ezagun Eric Villalon eta Hodei Iurrita.

Bai, komunikabideetan oihartzun handia izaten du eta azken olinpiar jokoetan zilarrezko eta brontzezko dominak lortu genituen.

Ondoren utzi egin genuen. Eric-ek 10 denboraldi zeraman honetan eta nekaituta zegoen.

Beste norbaitekin jarraitzeko asmorik?

Ez, orain Goierrri eskolan mekanika modulua bukatu nahi dut. Gainera, Jakan lana atera zait gazteei laguntzen eta entrenatzaile titulua ere atera nahi dut. Orain bi lekuean nago: hemen eta Jakan. ONCE-koek nahi dute nik jarraitzea, baina oraingoz ikasketak bu-

Lehiaketetan hainbat urte


Aitak zaletasun handia zuen eta anaia hasi zen aurretik, "bera lehiaketetan ere ni baino lehenago aritu zen eta orain Jakan ari da lanean bertako klub batean entrenatzaile lanean". 3 urte zituela hasi zen Hodei Iurrita eskiatzen eta bere ama ere orduan animatu zen, seme gazteenarekin batera eski gainean ibiltzen.

Txikitandik hasi eta 16 urtera arte lehiaketetan aritu zen Hodei. "Jubeniletan utzi nuen. Espainiako selekzioarekin aritzen nintzen, baina, aspertuta utzi nuen. Denbora asko behar zuen uztailan, abuztuan, irailean eta urria Alpeetara joan beharra izaten nuen entrenatzera, gero Pirinioetara. Beti joan-etorrian ibili beharra izaten nuen". Bakarka lehiaketa asko irabazi zuen, 5 aldiz izan zen Espainiako txapel-dun. Jubenila zela profesionalekin Europako kopan parte hartzeko aukera ere izan zuen.

Iaz, denbora askoren ondoren, lasterketa pare batetan parte hartu zuen eta ondo ibili zen. Baina, ez du berriro lehiaketetan buru belarri sartzeko inongo asmorik, "horretarako denbora eta diru asko behar da. Askok bidaiatu behar da, ez da futbolearen bezala, herrian bertan duzula futbol zelaia". Hori bai, eskitik bizitzera aukera bat bezala ikusten du, horretarako ari da ikasten, bat ateratzen ez bazaio besteari heltzeko.

Mundua ezagutzeko aukera

Jakan, zaletasunez aritzen da, bertan duelako txokoa. Baina eskiak mundua ezagutzeko aukera eman dio Hodeiri, iaz esateko, hiru aste Austrian, hilabete Italian, Korean, Japonian... ibili zen.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



katu eta entrenatzaile titulu lortu nahi dut.

Nola sortu zen Eric Villalonekin harremana?

Ni aurretik lehiaketetan ibiltzen nintzen. Orain dela 5 urte, 16 nituela, utzi egin nuen. Orduan, ONCEkoek deitu zidaten ea itsu bati laguntzeko prest nengoan galdetzeko. Horrela hasi nintzen pixkanaka probatzen, bion artean koordinazioziorik ba zegoen ikusten. Azken finean denbora asko egon behar zara elkarrekin eta gai ginen ikustera joan nintzen. Gustatu zitzaidan eta bertan geratu nintzen. Hori bai, erabakia hartzeko garaian zeuden diru-laguntzek zerikusi handia izan zuten.

Lan berria lasaia goa zen, entrenamentuetan ez genuen halako jipoirik jasaten. Itsuarentzat gogorragoa zen. Niretzat bidaiatzeko aukera ederra izan da. Olinpiar jokoak eta munduko txapelketak 4 urtez behin izaten dira. Orain dela 2 urte mundialetan 4 disziplinetan lortu genituen garaipenak.

Hasieratik Eric-ekin aritu zara, beraz elkarren osagarri zineten.

Bai, bost negu egin ditugu. Eric-ek niregan konfidantza osoa behar du. Sei bat eskiatzaile oso denbora tarte txikiaren barruan ibiltzen ziren. Orduan ez zen kalitate kontua bakarrik, denek zuten kalitate handia. Gida-



Irteeran 3, 2, 1, 0 kontatzean, Hodei 1 esandakoan ateratzen da eta Eric 0 esatean. Eric-ek % 10eko ikusmena du. Hiru itsu maila daude lehiaketetan, eta Eric B2 edo erdiko mailan dago. Irrati bat eramaten du gidariak hitz egiteko baina itsuak ezin du hitz egin. "Eric-ek esaten zuen ni zaku bat bezala ikusten ninduela. Irrati bidez leku zailenetan oharrak ematen dizkiot, azken finean rally-etako kopilotuak bezala. Nik bere abiadura mantendu beharra dut, ez azkarregi joan, ezta bere abiadura moteldu ere", dio Hodeik.

riarengan konfidantza izan eta topera joan beharra zegoen. Gertatu izan da konfidantza gutxirekin egon eta atzera geratzea.

Ordu asko beharko dira entrenamenduetan.

Bai, denbora asko da. Iaz ikasketak utzi behar izan nituen eta aurtun serio heldu eta bukatu egin nahi dut. Denbora asko behar da, alde batetik irabazi egitenda eta bestetik galduta.

Zer nolako maila dago?

Geroz eta handiagoa. Benetan, inpresionatu egiten du nola jaisten diren ikustekak. Eskiatzaile profesionalak

ibiltzen diren pista berdinetan aritzen dira ezinduek ere. Askoz ere ikusle gutxiago joaten da noski. Baina geroz eta lehiakide gehiago, orduan eta ikusle gehiago joaten da. Orain arauak ere hobetzeko asmoz berritzen ari dira. Orain dela 5 urte hasi nintzenetik asko hobetu da.

Diru-laguntzak ere asko hobetu dira. Adibidez, Eric-ek Bartzelonan ONCE-ko txartelak saltzen lan egiten zuten, baina urte erdia kanpoan egiten zuten. Kanpoan zen garai horretan bere soldata kobratzen zuten. Bekak

ere izaten zituen. Estatu gutxi dute honetan Espainiak bezain antolaketa ona.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ona. Itsuak, elbarriak... mota guztietako jendearekin elkartu naiz eta asko ikasten da. Muga asko izan arren, bizimodu normala egiteko gai dira. Hasieran beldur pixka batekin sartu nintzen. Adibidez, lehenengo aldiz gure etxera etorri zenean ez genekien berarekin nola aritu behar ginen. Berak ere gutaz barre egiten du, azkenean guk ere izango dugu akatsen bat.

berriz

AMAYA ARZUAGA FRENCH CONNECTION
 MIRIAN OCARIZ DIESEL
 ISABEL MARANT FOR ALL MANKIND
 PAUL & JOE ANTIK BATIK
 HOSS EARL JEANS
 MISS SIXTY SCOOTER

BEASAIN DONOSTIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"

K. Nagusia 35 BEASAIN ☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO ☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA ☎ 943 16 00 44

GOKINDEGIA GAIKONA



Karmele Izagirre ataundarra, bihotzeko kontuetan

Bihotzeko prentsan aditua da Donostian jaio, Madrilen bizi eta bihotzez ataundarra den Karmele Izagirre kazetaria. Madrilen lan egiten du, Espainiar Estatuko pertsonaia "ospetsuen" albisteak, txutxumutxuak emanek. Bere lanari, umore puntua jartzen saiatzen da ataundarra, prentsa arrosa parre egiteko kontua dela uste baitu.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



mazda


☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



Gaur egun txutxumutxuen munduan, prentsa arrosan, zabitza Madrilen. Nola iritsi zara kazetaritzako arlo honetara?

Lehenengo lana, gasolinere-tako aldizkari bat egitea izan zen. Estatu mailako gasolindegia bitatu eta fitxa bat egiten nuen. Euskaldunon Egunkarian ere kolaborazioak egin nituen. Madrilen bizi nintzenez, urtebetz-edo, kolaborazioak egin nituen. Era guztietako gaiak lantzen nituen. Politika ez zitzaidan gehiegi gustatzen eta utzi egin nuen. Oso gustura ibili nintzen. Leioan kazetaritza ikasketak euskaraz egin nituen eta Madrilen bizita euskaraz idazteak ilusioa egiten zidan. Eskola txikietan euskaraz ikasten nuen eta gaztelarrik ez nekiela-eta, amak mojatara bidali ninduen erdaraz ikastera. Kazetaritza ikasteko garaia iritsi zenean, euskaraz egin behar nuela erabaki nuen, beraz oso berezia izan zen euskaraz lan egitea.

Herri Irratian ere urte asko daramatzat kolaboratzen. Inigo Arbizarekin urte askoan lan egin dut. Prentsa arrosa egiten hasi nintzen. Gero, ETB-2ko 'Lo que faltaba'-tik deitu zidaten.

Madril aldera joateko aukera nola sortu zitzaizun?

Behin Carlos Ferrando Donostiako Zinemaldira etorri zen eta telebistan ikusi ninduen. "Hain arraroa den neska hau nahi dut" esaten zuen. Berak esaten zuen desberdina nintzela. Orain dela zazpi bat urte hasi nintzen berarekin lanean.

Erraza egin zitzaizun prentsa arrosaren mun-



Bihotzeko Ataun

Donostian jaioa da Karmele Izagirre eta Madrilen bizi da. Dena den, ataundarra da sentimenez eta bihotzez. "Gurasoak ataundarrak dira, 17 urtera arte, udako oporrak Ataunen bizi izan ditut, amonaren baserrian. Lotura handia daukat eta beti Ataun daukat go-goan. Sentimenez ataundarra naiz. Ataunen nago errolatua nago eta harro nago", zehaztu du Karmele Izagirrek.

Hilean behin saiatzen da Euskal Herrira etortzen. Ataungo San Martingo jaietan ere Ataunen izan da hutsik egin gabe, amonaren baserrian, bazkaltzen.

Amona jarraitzaile fina du, ama ere bai. "Amonak 96 urte ditu eta beti fijatzen da ea guapa nagoen, zein arropa daukadan... berak ez duela ezer ulertzen esaten dit baina guapa nagoela. Ama kolaboratzaile bezala daukat. Bertin Osborne Donostiara etorri dela... eta horrelakoak esaten dizkit", zehaztu du ataundarrak. Hori bai, amari ez omen dio egi guztia kontatzen. "Lina Morgan jatorra dela esaten dit amak, beste halako ere bai. Askotan amari ez diot egirik izaten, askotan disgustoa hartuko lukeela. Mundu hau barrutik ezagututa, gauza itsusi asko ikusten da".

duan sartzea ala beste gaietan ere gustura zentzuzko biltzan?

Prentsa arrosa parre egitekoa da, niretzat ez da serio hartzeko gauza bat. Baina gero eta gehiago, gai serioak sartzen hasi dira prentsa

arrosan ere. Kazetari askok bere buruari garrantzia gehiegi ematen diola uste dut. Nik denborapasa bezala egiten dut eta jendeari parre eginarazteko. Nik beti horrela ikusi izan dut lan hau. Nik Ferrandorekin egi-

ten ditudan lan guztiak arlo horretan izan dira. Elkarrizketak ere egiten dizkiegu, aktoreei, musikariei... ez da tontakeriez hitz egitea.

Prentsa arrosa espektakulu bihurtzen ari da eta askotan kazetariak epaile

**Tel. eta Faxe: 943 886 558**
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
KARROZERIA
943 88 43 01



papera ere hartzen dute. Zu hasi zinenetik hona asko aldatu al da?

Asko. Orain kazetariak izar bihurtu dira eta nik hori inoiz ez dut ulertu, inoiz ez dut ulertuko eta niretzako ez nuke nahi. Tele 5-n lan egin dut, Antena 3-etik ere deitu izan didate... Gogoratzten naiz behin Nuria Bermudezi elkarrizketa egin behar niola eta esaten zidaten "puta" zela esateko. Nik pentsatzen nuen ni zein nintzen hori esateko eta bost urte kazetaritza ikasten zertarako ikasi nituen, nire amonak Ataunen zer pentsatu behar du... Hori ez da niretzako. Ez da erraza erabaki hori hartzea. Orain Tele 5-kotik norbaitek esango balit astebetean 8.000 euro emango dizkidala elkarrizketa bat egiteagatik, ezezkoa esatea ez da erraza. Baina ni saiatzen naiz ahal dudanean, nire kontzientzia ondo egon dadin eta niri gustatzen zaidan lana egiten.

Estilo bat hartu duzu, umorean oinarrituta.

Umoreanekin bai, baina nik uste dut Euskal Herriatik gauzak ezberdin ikusten direla. Nik uste dut euskaldunok txutxumutxu saioak ikusi ikusten ditugula baina ez gara inplikatzeko. Andaluzian txundituta gelditzen naiz. Barruraino sartzen dira, dena sinisten dute. Sentitu egiten dute. Guk distantzia batekin ikusten dugu, denborapasarako ondo dagoela, baina ez dakit, txiste bat entzutea bezala. Denbora pasatzeko, nik behintzat horrela ulertzen dut.

Euskaldunon umorea ulertzen al da Espainian?

Nik zorte handia eduki dut. Nire izaera beti errespetatu izan dute eta ez dut arazorik eduki. Nik ikusten dut nire errealitatea ez dela errealitate osoa, batez ere programa handietan izugarritzko konpetentzia dago. Aiztoak aterata ibiltzen dira beti. Nik beste lasaitasun



"Gaur egun batzutan errazegia da famatu biburtzea"

Bihotzaren taupadak

Telebistan eta irratan lan egiten du Karmele Izagirre ataundarrak. Ono kate tematikoan 'Demasiado corazón' aurkeztzen du Carlos Ferrandorekin batera, astelehentik ostegunera, gaueko 9,30etatik 12,30etara. Kolaborazioak ere egiten ditu Teledonostiko 'Oh la la' saioan adibidez.

Irratiari dagokionean, Donostiako Herri Irratian 'El Patio' saioa atezaina da Karmele Izagirre. Astelehenetan eta ostegunetan, bihotz munduko albisteak kontatzen ditu.

batekin egiten dut lan, oraindik behintzat.

Euskaldunok ez garelakuxkuxeroak esaten da baina audientziek esaten dute Espainiako telebista kateetako txutxumutxu programak Euskal Herrian ikusten direla gehien.

Adibidez, harrigarria da Tele 5-k Euskadin nolako audientzia daukan. Baina nik uste dut hori ere aldatzen

ari dela pixka bat. Lehenagoinork ez zuen esaten horrelako programa bat ikusten zuenik, kulebroiekin bezala. Baina nik uste dut aldatu dela. Orain gainera telebista pixka bat kartara dago. Etxe askotan dago Imagenio, edo... lehen telebista beste era batera ikusten zen.

Posible ikusten duzu Euskal Herrian txutxumutxu saioaren bat egitea?

Urte gutxitan, asko aldatu dira egoera eta telebista. Guk 'Lo que faltaba' egiten genuenean denok kanpotik bezala ikusten genuen, gainera Madrilen bizi nintzen. Dena distantziarekin ikusten genuen. Euskadin hori da egiteko modu bakarra. Guk produktu bat ateratzeko Euskadin? Ez, ez dut imajinatzen. Sevillan pentsa zenbat albiste ateratzen diren. Euskaldunak behintzat Euskadin lasai-lasai bizi dira. Ospetsuak ere bai. Igor Yebra adibidez Bilbora itzuli da eta lasai bizi da.

Gaur egun famatua izatea erraza al da?

Errexegia batzutan. Askotan pentsatzen dut guk zein erantzunkizun daukagun. Eta guk esaten dudanean, nik kazetari bezala eta kontsumitzen duenak ikusle bezala. Askotan ez dakizu non dagoen muga. Baina nik uste dut horrek ere aldatu behar duela. Bakarrik falta zaiagu, plato batean pertsona batek bestea aitzo batekin hiltzea edo zuzenean 'raya' bat hartzea. Nik uste dut iritsi garelako puntu batera ezin dela biolentzia gehiago egon. Negozio honek milioika euro ematen ditu eta segituko du. Baina nik uste dut okerrera ezin dela gehiago joan.

Famatu mundua ere asko aldatu da ezta?

Gaur egun askotan legea erabiltzen da, epaitegietara joan eta salaketak erakustera dira joaten dira platoetara, salaketa faltsuarekin. Horra iristea okerrera da. Nire buruak ez du imajinatzen okerrera gehiago nola joan daitekeen.

Muga non legoke zuretzat?

Nik uste dut, zure bizitza profesionala nora eramanez nahi duzun dela lehenengo muga. Nik inor ez dut gaizki tratatu, uste behintzat. Errespetuarekin. Ikusi behar dugu errespetu gabe tratatzeko ez garelako inor. Pertsonai batek, platora



Prentsa arrosa parre egitekoa da, niretzat ez da serio hartzeko gauza bat.

ertortzen den momentutik, errespeto bat merezi du eta nik uste dut ikusleek ere ez dutela ikusi nahi jendea zeinen gaizki tratatzen den. Hori da behintzat nire iritzia.

Euskaldunak ezberdinak al gara?

Ainhoa Arteta adibidez, musika munduan oso errespetatua da, bihotz inguruan ere bai, bikotea utzi du, beste euskaldun batekin dabil, baina beti distantzia batekin egoten da. Inoiz ez da pertsonaia bihurtuko. Albisteak sortzen dira baina, desberdin. Anne Igartururu ez dut programa batean bere bizia kontatzen ikusten. Agian euskaldun izateari garrantzia gehiegi ematen diot, baina ez du hutsik egiten. Gure kontuak guretzat direla iruditzen zait Euskadin.

Euskal pertsonaiei errepassoa

Euskal pertsonaietan, eleganteena?

Ainhoa Arteta.

Erakargarriena?

Iñigo Segurola.

Freek-ena?

Mikel Goñi.

Okerrena janzten dena?

Anasagasti.

Sinpatikoena?

Klaudio Landa.

Antipatikoena?

Maria San Gil.

Aspergarriena?

Begoña Alonso, Bustamenteren andregai ohia.

Nork emango luke joko gehien?

Ainhoa Arteta.

ORAINTXE DUZU AUKERA!

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN



Zuk lenteak aukeratu eta guk **ARMAZOIA OPARITU**

euro 1 gehiago ordaindu gabe!

BONARDI

Zure lenteak *MultiOpticas* dendetan erosiz gero, **BONARDI** azken bildumako armazoia erregalo.

8006/73M
A: purple B: brown C: pink

8006/72M
A: red B: orange C: blue

8006/77M
A: gun metal B: blue C: light brown

8006/81A
A: dark blue B: burgundy C: black/red

8006/53NY
A: grey B: red C: blue

R.P.S. N.º 180/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

Itsasondo

Kultur astea

Azaroak 21, asteartea:

19:30ean: Abiadura Handiko Trenaren inguruko hitzaldia. Mila Elorza, AHT gelditu Elkarlaneko kideak eta Eneko Karrera, Gipuzkoako EHNE sindikatuko lehendakariak, AHT-ren aurkako azalpenak emango dituzte.

Azaroak 22, asteazkena:

19:30ean: Abiadura Handiko Trenaren inguruko hitzaldia. Bertan EAJ-ko Xabier Ezeizabarrenak AHTren onurak azalduko ditu.

Azaroak 28, asteartea:

19:30ean: Abiadura Handiko Trenaren inguruko mahai-ingurua. Bertan AHTren aldekoen eta kontrakoen arteko eztabaida izango da.

Abenduak 1, ostirala:

21:00etan: Kantu afaria, Ioritz eta Erika kantarien konpainian.

Abenduak 2, larunbata:

15:30ean: Haur eta helduentzako tailerrak izango dira pilotalekuan: margoketa, keramika, gozogintza, janariak enbotatzea, egur taila, talo egitea eta umeen arropa margotzea. **18:30ean:** Udaletxeko Batzar Aretoan herriko emakumeek egindako filma ikusi ahal izango da. **19:30ean:** Talo Festa izango da pilotalekuan. Bertan herriko talogileek egindako taloak dastatu ahal izango dira.

Legorreta

Neguko festa

Azaroaren 18an eta 19an, neguko bi produktorekin lotutako janaldiak egingo dira Legorretan, Neguko Festaren barruan.

Azaroak 18, larunbata:

18:30ean: Gaztaina jana, Udal pilotalekuan. Prezioa: 3 euro.

Azaroak 19, igandea:

13:00etan: Ozenki Otxotearen emanaldia herriko kaletan.

14:30ean: Bilkoin elkartean, babarrun bazkaria. Prezioa: 22 euro. Jose Lorentxo Soroz buru eta Jose Manuel Soroz, Pili Iturbe eta Sabino Fernandez lagun di-rela, prestatuko dute bazkaria.

Ekintza hauetan bildutako dirua, Kolonbiako Nuestra Señora. de la Asunción ikastetxea berritzera zuzenduko da.

*Ordizia*

Ardoaren XIV. astea

Astean zehar Ardoaren astea ospatzen ari dira Ordizian. Kalitatezko ardoak aurkeztu eta ezagutaraztea, upategiek egiten duten lanaren ekoizpena ezagutaraz dezaten laguntza ematea eta kontsumitzaileak, kalitatezko produktuak estima ditzan eragitea dira Ordizian antolatzen duten Ardo Astearen helburua.

Ardoarekin lotuta, beste hiru ekintza ere egingo dira Plaza Nagusian: azaroaren 17an Gipuzkoako VIII. Odolki lehiaketa jokatu da eta azaroaren 18an, Ordiziako Gazta Txapeldunen XIX. Lehiaketa eta Lorabakarreko Gipuzkoako Ezti II. Lehiaketa. Egitarau zehatza hurrengo lerrootan daukazue:

Ardoaren azoka

Azaroaren 17an eta 18an, Plaza Nagusian izango da. Ostiralean, 18:00etatik 21:00etara eta larunbatean, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 21:30era.

Gipuzkoako odolki lehiaketa

Zortzigarren edizioa jokatu da aurten, azaroaren 17an, arratsaldeko 6etan hasita.

Ordizia txapeldun

Larunbatean, goizeko 11,30etan hasita, XIX. Ordizia txapeldun gazta lehiaketa jokatu da. Hau da, azken hamar urteetan iraileko azoka bereziko gazta lehiaketa irabazi duten gaztak lehiatuko dira.

Ezti lehiaketa

Gipuzkoako II. ezti lorabakar lehiaketa jokatu da azaroaren 18an, 18:00etan hasita. Lehiaketaz gain, ezti dastaketa ere egingo da.

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasain erdigunean, etxebizitzarako egokitutako etxe beha salgai, edozein jardunetarako. 686062963.

Lazkaon etxebizitza paregabea salgai Gurutze Kalea Ilean. Herri erdian. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastalekua eta balkoi handi bat. Bista paregabeak. 2 igogailu. Interesatuenek deitu 670588470 telefonora.

Beasainen, etxebizitza salgai. 943027073 - 680238512.

Itsasondon, etxea salgai, berritzeko. Baratzarako aukerarekin. Aukera ona. 696218195.

Seguran etxebizitza salgai. 67 m². 2 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Garaje itxia. 615756863.

errentan eman

Ordizian, Filipineta kalean, logela bateko apartamentua alokatzen da. 635758491.

Ezkarain, apartameta alokatzen da urte osoan edo denboraldi baterako. 678344604.

LOKALAK

errentan eman

Zegaman 90 metroko biltokia alokatzen da. 943801107 - 695722341.

GARAJEAK

salgai

Seguran garajea salgai. 25 metro. 670975333.

Ormaiztegin lurrazpiko garajea salgai. 676987135.

IBILGAILUAK

salgai

Renault Trafic furgoneta salgai. Combi 100 Dci, 100 zaldi, 140.000 kilometro, 4 urte eta lotarako prestatuta. 943883592. (Mikel).

Opel Ascona 1800 injezioa, SS-VV, salgai 300 eurotan. 630971649.

Ford Mondeo 1.8 TD salgai. 1997. urtekoa. ABS, aire ego kitua. Merke. 670975333.

Volkswagen Polo autoa salgai. 4 ate. 47.000 km. Egoera paregabea. 665731067 - 943885445.

Fiat Punto salgai, prezio onean. 619002492.

BESTELAKOAK

salgai

Gerezi egurrezko logela berria salgai. Osagaiak: 2,5 metroko armairua, 1,30 metroko komoda, 1,18 metroko ohea. Baita ere, marrazketa mahaia bere aulkiarekin eta 25 hatz beteko Philips marka-telebista. 943889903 - 620307656.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Sutarako pago egurra salgai. 690767513.

erosi

Trikitixa erosiko nuke. 4 bozakoa, Slb. 943085039.

LANA

eskaerak

Pertsona euskalduna behar da Goierriko okindegi-kafetegi batean lan egiteko. Interesatuek deitu 943885500 telefono zenbakira 8:00ak eta 14:00ak bitartean

Ingeniari mekanikoak behar dira eskolak emateko. urrats@telefonica.net

Goierriko elektrizitate enpresa batek bi langile behar ditu, esperientziadunak eta euskaldunak. Goizez deitu. 943800000.

Ormaiztegin zerbitzaria behar da. 635717992.

Zerbitzaria behar da Ordizian. 14 paga eta oporrak. 687609093.

eskaintzak

Adineko pertsonak zaindu edo garbiketan lan egingo nuke. Lan ez kualifikatuak. Ibilgailuarekin. 678781985 - 943085636.

Gauetz adineko pertsonak zaintzeko esperientziadun eta formakuntza duen emakumea eskaintzen da. 616889923.

Neska eskaintzen da informatikako klaseak emateko. Adin guztiak. Bi urteko esperientzia. Ainhoa. 679556586. aynoa82@hotmail.com

Emakumea etxeko lanak egiteko edota gaixoak zaintzeko prest dago. 652701620.

Iragarki laburrak:

Hitz bakoitzeko 0,60 euro

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info



6 Etxebizitza Arbizun

TDH Lizarraga

Beasaindik 20 minutura

210 metro Etxebizitza + Lorategia

Bizitzera berehala sartzeko

PREZIOA: 273.00€ + BEZ

INFORMAZIOA eta SALMENTA

618 610 372

948 468 454



Ormaiztegi futbol taldea 1929. urte inguruan

Ander Iurritak utzi digun argazkian Ormaiztegi futbol taldea ageri da. Talde honek Zubi-Handi zuen izena eta "Kanpo Kontxita" izeneko futbol zelaian jokatzen zuen.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Matias 'Txistu' (Bergarakoa, San Anton lantegiko tallista), Inazio Intxausti (Karterone), Luis Murua, Modesto Campos, Matias Apaolaza (Lezeta), Eugenio Ugartemendia (San Estebango morroia), Bernardo Gurrutxaga (Zesterone), Floro Irizar eta Joakin Berasategi (Kaseta).

Lurrean eserita: Eugenio Murua, soinujolea, German Campos eta Frantzisko Iurrita (Mendizabal baserriko Danbor-en anaia).

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 943 160 120
Beasain www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Arreta pertsonalizatua
- ✓ Talde txikiak

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

TAILERRAK

- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Barreterapia
- ✓ Erlajazio teknikak
- ✓ Nola aurkitu lana
- ✓ Jende aurrean hitzegin
- ✓ Emozioen kontrola

INFORMATIKA


- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

2006-2007 IKASTURTEA
MATRIKULA IREKIA



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

GABONAK 2006

Saskiak eta Sortak

2006ko urriaren 2tik abenduaren 23ra

Carrefour 

con Carrefour es posible

I CANTABRIA
2006
LIÉBANA TIERRA DE JÚBILO

www.carrefour.es



ARAKAMA

barne diseinua

Hiribarren, 24 - LAZKAO

Tel.: 943 888 717

a.arakama@euskalnet.net